# 3/2019 EBAZPENA, uztailaren 23koa.

**PRESIDENTEA:** María Barrena Ezcurra.

**MAHAIKIDEA:** Cesar Alonso Campo.

**IDAZKARIA:** Iñigo Alvear Lekue.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasuneko Erreklamazioen Batzordeak — goian adierazitako pertsonek osatzen dute— aurkeztutako salaketa dela-eta ondorengo EBAZPENA eman du; txostengile Iñigo Alvear Lekue jauna aritu da, eta berak adierazi du batzordearen iritzia.

## EGITATEZKO AURREKARIAK

2019ko uztailaren 17an, (aurrerantzean, *"salatzaileak"* edo ') sinatutako gardentasunaren inguruko salaketa bat sartu zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistroan. Salaketak ondokoa du oinarri: salatzailea ez dago ados Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak igorritako zergei buruzko ziurtagiriaren edukiarekin, horren arabera ez baitago bere emazte ohiari buruzko inolako informaziorik. Ziurtagiri hori Gernikako Lehen Instantzia eta Instrukziorako bigarren epaitegiak eskatu zuen.

Salaketarekin batera ondoko erakundeek igorritako ziurtagirien kopia erantsi da: Trafiko Zuzendaritza Nagusiak; Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Lurralde Ordezkaritzak; Gizarte Segurantzaren Instituto Nazionalak eta Bilboko Epaitegi Dekanoko Erregistroen Kontsultarako zerbitzuak.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

# RESOLUCIÓN 3/2019, de 23 de julio.

**PRESIDENTA:** María Barrena Ezcurra.

**VOCAL:** César Alonso Campo.

**SECRETARIO:** Iñigo Alvear Lekue.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la denuncia formulada por actuando como ponente Don Iñigo Alvear Lekue, quien expresa el parecer de la Comisión

## ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 17 de julio de 2019 tiene entrada en el registro de la Diputación Foral de Bizkaia denuncia en materia de transparencia suscrita por (en adelante, *"el denunciante"* o ). La denuncia se fundamenta en su disconformidad con el contenido de certificado tributario expedido, a solicitud del Juzgado de 1ª Instancia e Instrucción numero 2 de Gernika, por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, en virtud del cual se informaba respecto de la inexistencia de información relativa a la exmujer del denunciante.

Se adjunta al escrito de interposición copia de las certificaciones emitidas por la Dirección General de Tráfico; por las Delegaciones Territoriales de la Tesorería General de la Seguridad Social y del Instituto Nacional de la Seguridad Social y por el Servicio de Consulta Registral del Juzgado Decano de Bilbao.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

Lehenengoa.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren lehenengo artikuluak dio horren xedea dela gardentasuna bermatzea, bere bi dimentsioetan, hau da, publikotasun aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidean.

Aurrekoa garatuz, 17. artikuluaren bigarren paragrafoak dio informazio publikoa dela foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok.

Primero.- La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia del Territorio Histórico de Bizkaia, establece en su artículo 1 que constituye su finalidad garantizar la transparencia, en su doble dimensión de publicidad activa y de derecho a la información pública.

En desarrollo de lo anterior, el apartado 2 del artículo 17 señala que se entenderá por información pública cualquier tipo de documento, independientemente de su soporte, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la norma foral y que hayan sido elaboradas en el ejercicio de sus funciones.

Bigarrena.- Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu zen. Foru-arau horren 29. artikuluarekin bat, honako eginkizun hauek ditu batzordeak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea espresuki edo presuntzioz ukatzeagatik aurkeztutako erreklamazioak ebaztea.

Segundo.- La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016. El artículo 29 de la citada Norma Foral establece como funciones de la Comisión, entre otras, la de resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública.

Hirugarrena.- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta jarduera-araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuak hau xedatzen du 18. artikuluan:

Hona zein diren batzordeko osoko bilkuraren eskumenak:

*a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.*

*(...)*

*i) Gardentasunaren araudia hausteagatik egiten diren salaketak jaso eta, hala badagokie, izapidetzea. Beharrezkoa denean (kontuan harturik kasuan-kasuko arau-haustearen*

Tercero.- El Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, establece en su artículo 18:

Son competencias del Pleno de la Comisión:

*a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.*

*(...)*

*i) Atender y tramitar, en su caso, las denuncias por incumplimiento de la normativa de transparencia, instando al órgano competente, si fuera necesario atendiendo a la gravedad de*

*larritasuna eta horri buruzko txostena eginik), eskumena daukan organoari eskatzea diziplina-espedientea abiaraz dezala, 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 29.2, 34.3, 34.4 eta 39.4 artikuluetan ezarritakoaren arabera.*

*los diferentes supuestos y previo informe al respecto, la incoación de un expediente disciplinario, en los términos establecidos en los artículos 29.2, 34.3 y 4 y 39.4 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia.*

Laugarrena.- Egitatezko aurrekarietan adierazi dugun moduan, salatzaileak salaketa aurkeztu du Bizkaiko Foru Aldundiak igorritako ziurtagiriaren edukiak informazioa akasduna duela uste duelako (ziurtagiri hori Gernikako Lehen Instantzia eta Instrukziorako bigarren epaitegiak eskatu zuen). Salatzailearen esanetan, informazio horrek eragina izan dezake hurrengo datetan egingo den epaiketa prozedura batetan.

Cuarto.- La denuncia se presenta, conforme hemos tenido ocasión de indicar en los antecedentes de hecho anteriores, por considerar el denunciante que el contenido del certificado emitido por esta Diputación Foral de Bizkaia a petición del Juzgado de 1ª Instancia e Instrucción número 2 de Gernika, contiene información errónea, alertando de la eventual incidencia de la misma en un próximo procedimiento judicial.

Batzorde honen iritziz, aurkeztutako salaketa ez dago gardentasunari buruzko araudiaren aplikazio-eremuan, ez baitu oinarri pubikotasun aktiboarekin inguruko betebeharrak ez betetzea edo informazio publikoa eskuratzeko eskubidea espresuki edo presuntzioz ukatzea.

A juicio de esta Comisión, la denuncia formulada por no se incluye en el ámbito de aplicación de la normativa en materia de transparencia, toda vez que no tiene como objeto el incumplimiento de las obligaciones de publicidad activa o la denegación expresa o presunta del acceso a la información pública.

Ondorioz, ez dago Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen jarduketa eremuaren barruan.

Por lo tanto, excede igualmente del ámbito de actuación de la Comisión de Reclamaciones en Materia de Transparencia.

## EBAZPENA

Lehenengoa.- Gardentasunari buruzko araudiaren aplikazio-eremuan eta, ondorioz, Batzorde honen jarduketa-eremuan ez egoteagatik
jarritako salaketa EZ ONARTZEA.

## RESOLUCIÓN

Primero.- DECLARAR INADMISIBLE la denuncia presentada por
, al no referirse a cuestiones reguladas por la normativa vigente en materia de transparencia y exceder, por tanto, del ámbito de actuación de esta Comisión.

**Bigarrena**.- Ebazpen hau salatzaileari jakinaraztea.

**Segundo**.- Notificar esta resolución al denunciante.

**Hirugarrena**.- Ebazpen hau jakinaraztea Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Modernizazio, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari.

**Tercero**.- Comunicar esta resolución a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

Ebazpen hau behin betikoa da; administrazio-bidea amaitzen du, eta, beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta jarduera-araudia onesten duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta administrazioarekiko auziak arautzen dituen jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin ados egonik.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Kopia da.

Es copia.

BATZORDEKO IDAZKARIA

EL SECRETARIO DE LA COMISIÓN